

# Truke programak 14 lagun hartu ditu, Hirugarren Mundukoak

2007/03/09

Astelehenean aurkeztu zen HUHEZIn **Truke** programaren aurtengo edizioa, **zortzigarrena**, eta hor parte hartzen ari dira 14 lagun, denak Hirugarren Mundukoak. Truke programa Mundukide Fundazioak antolatzen du, Lanki eta Mondragon Unibertsitatearekin batera, eta bultzatu nahi ditu lankidetzan oinarritutako harremanak Hirugarren Munduko jendearen eta gure artean.



Aurten 14 lagun etorri dira Truke programara, herrialde hauetatik: Angola, Argentina, Bolivia, Brasil, Ekuador, Kolonbia, Nikaragua, Uruguai eta Venezuela. Hilabete batez Euskal Herrian barrena ibiliko dira, kooperatiben esperientzia ezagutzen, eta parte hartuko dute hitzaldi eta mahai inguru askotan.

## Truke programaren helburuak

Esperientzia hauetara beti gonbidatzen dira hainbat pertsona, protagonista direnak Hegoaldeko garapen esperientzietan, programak helburu hauek ditu-eta:

- Zuzenean transmititzea kooperatiba arizmendiarraren esperientzia eta mugimendu kooperatiboaren inguruan sorturiko egitura komunitarioa.
- Unibertsitate ikasleek zuzenean ikastea gonbidatuen bizipenak, garapen komunitarioaren gainekoak.
- Gure artean zuzenean ezagutaraztea Hirugarren Munduko ekarpen eta errealitate komunitarioak.
- Lankidetzaren harremanak sortzea hango eta hemengo erakundeen artean.